

Itzulpengintzaren Nazioarteko Eguna 2007

Ez akabatu mezularia!

Kalitate oneko itzulpenen bila bazabiltza, itzultzaile eta interprete profesionalengana jotzea komeni zaizu beti. Baina, arren, ez itzazu akabatu!

(...) Ateraldi lotsagarri hura entzutean, ganberako kide guztiak zapuztu egin ziren; eta, goi-mailako diplomatikoak desenkusazko hitz batzuk lortzen saiatu ziren arren, Berlusconi jaunak ez zuen barkamenik eskatu nahi izan... Nola ez, izan zen itzultzaileari —kasu hartan, interpretari— errua egozteko saiakerarik ere. «Nire txantxak ez zuen inor iraintzeko asmorik— azaldu omen zuen Berlusconi, AP agentziaren agiri batek jakinarazi zuenez—, ironia zegoen txantxa horretan. Beharbada itzulpenak ez du ironia hori islatu.»

«(...) Lehendakaria txantxetan zebilen —adierazi zion [Kremlinoko bozeramaile batek] BBC kateari—. Errusiera oso hizkuntza konplexua da; haren fraseologiak, batzuetan, oso ñabardura sotilak egiten ditu. Ez dut uste itzulpen zuzenak txantxa horren zentzua helaraz dezakeenik.»

Bi pasadizo horien moduko asko daude: dagoeneko tradizio bilakatu da politikoen hanka-sartzeak itzultzaileari edo interpretari leporatzea, haien irudia zuritzearren. Inor gutxiri sartzen diote ziria, ordea; itzultzaileak etsipen-keinua egiten du, eta aurrera jarraitzen du bizitzak.

Haatik, han-hemenka eroritako itzultzaile-martirien gorpuez josita dago Historia; izan ere, gero eta arriskutsuagoak bihurtzen ari dira hizkuntza-lanbideak. Munduko zenbait lekutan, itzultzaileek eta interpreteek bizia ere gal dezakete, beren eginkizuna betetze hutsagatik. 2006an 261 itzultzaile inguru hil ziren Iraken, eta Afganistanen beste asko. Beste herrialde batzuetan, itzultzaileek kartzela-zigorra edo heriotza-mehatxua jaso dute zenbait autoreren lanak itzultzera ausartzeagatik; hala nola, Salman Rushdie-renak. Itzultzaile bat hil ere egin zuten, arrazoi horregatik.

Itzulpengintza lanbide arriskutsua da. Itzultzaileek eta interpreteek ardura handia dute, hizkuntza- eta kultura-bitartekari gisa aritzen diren aldetik: itzulpenaren erruz gaizkiulerturen bat sortuz gero, ondorioak ikaragarriak izan litezke. Itzulpengintzan, interpretazioan eta terminologian aditu diren horien faltan, elkar ulertzea ezinezkoa bihurtuko litzateke, gure mundu globalizatu honetan.

Dela frontean soldaduen ondo-ondoan diharduen interpretea, edo ikustaldi ofizialean etorritako kargudunari belarrira xuxurlatzen diona; dela zure hurrengo autoaren erabiltzaile-eskuliburua itzuliko duen itzultzaile aditua, edo albistegiari azpitoluak ipiniko dizkiona, hizkuntza-profesionalen lana munduko bazter guztietan eta bizitzako alor guztietan barreiatuta dago. Edonor, edonon egonik ere, hizkuntza lanbide bihurtu duten horien lanaren beharrean dago, gero eta gehiago. Munduko buruzagirik argienak jakitun daude mezulariak ez direla pagaburuak, gauzak itsusten hasi orduko tiroak eta kulpak, denak euren bizkar hartzeko prest leudekeenak. Ezagutzen dute itzultzaileen benetako balioa, egiten dituzten galderen eta iruzkinen zorrotasunak mezu argiak eta biribilak —hitzezkoak nahiz idatzikoak— taxutzen laguntzen duelako, buruzagion gidaritzapean dauden erakundeen irudiari eta izen onari ohore egiten dion moduan.

2007ko Itzulpengintzaren Nazioarteko Egunerako «*Ez akabatu mezularia!*» leloa aukeratuz, Itzultzaileen Nazioarteko Federazioaren xedea arriskuez pentsaraztea da; ez bakarrik itzultzaileek aurre egin beharreko arriskuez, baita hizkuntz zerbitzu profesionalengana jotzeko arrazoirik ez dagoela uste duten haien arriskuez ere. Itzultzaile profesionalak hautatzeak zure mezua bete-betean helarazi ahal izango duzula bermatzen du, edozein hizkuntzatan emanik ere.

FIT - Itzultzaileen Nazioarteko Federazioa

Itzultzaileen Nazioarteko Federazioa munduko itzultzaile, interprete eta terminologoen elkarte profesionalen federazioa da. 80 kide ditu 60 herrialde baino gehiagotan, eta horrenbestez, 60.000 profesionaletik gora ordezkatzan ditu.

Itzulpena:
Itziar Otegi
Oskar Arana